



Lan Eskaintza Publikoa UPV/EHU

2007ko Irailaren 26a

Gaur 2007ko Irailaren 26an UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak onartu berri du OPEren Funtzionario plazetarako deialdiak, bertan kidego bakoitzerako oinarriak batzen dira.

2007ko Azaroaren 2an argitaratuko dira EHAAn eta 20 eguneko epea izango da eskaerak egiteko (Azaroaren 22ra arte). Deialdietan zehazten da non eta nola egin eskaerak.

Azterketak 2008ko Maiatzaren inguruan izango **omen** dira (ez daukagu data zehatzik). Gai honetaz zerbait jakiten dugunean berehala kaleratuko dugu.

Deialdietan agertzen denez Menpekoen eta Administrari Laguntzaileen kidegoetarako galdera zerrenda ezagun bat egongo da (500 galdera kasu batean eta 700 bestean urrenez urren) eta bertatik 100 galdera izango dira azterketa osatuko dutena. Galdera zerrenda hau oraindik ezezaguna da eta azterketa data baino hiru hilabete lehenago argitaratuko du administrazioak (onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda argitaratzen denean gutxi gorabehera)

Honez gain beste eskaletarako gai zerrendak daude eta kidego bakoitzerako desberdinak.

Aste bete barru (urriaren 4ean edo 5ean) jakinaraziko dugu, LABek prestatuko duen materiala (zein kidegotarako, zelakoa, zein soportean..), eta nola eta non izango duzuen eskuragarri.

LABen Sail Sindikala

www.labsindikatua.org/unibertsitatea

Tfnoak: 946012436-946015288

943018435

945014374

e-mail: lableioa@ehu.es

labdonostia@ehu.es

labgasteiz@ehu.es